# +verde

**Eraztun Berdeko albisteak / 2010eko uda**
Noticias del Anillo Verde / verano de 2010

**05 zenbakia**
número 05

***Bigarren aldia***
*Segunda época*

## ATARIAK URTEBETE BETE DU

## ATARIA CUMPLE UN AÑO



QUINTAS

Vitoria-Gasteiz


VITORIA-GASTEIZ Finalista 2012 2013
CAPITAL VERDE EUROPEA

Centro de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

Edita Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Realización Centro de Estudios Ambientales (CEA) Diseño y maquetación Gabinete de Comunicación del Ayuntamiento Texto Elena Zudaire y CEA Traducción Belaxe Imprime Gráficas Dosbi D.L. VI-427/09

Argitaratzailea Vitoria-Gasteizko Udala Gauzaketa Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (CEA) Diseinua eta maketazioa Udalaren Komunikazio Bulegoa Testua Elena Zudaire eta CEA Itzulpena Belaxe Imprimatzaile Gráficas Dosbi L.G. VI-427/09

Esta publicación está impresa en papel 100% reciclado

Aldizkari hau paper birziklatuan (%100) inprimatu da



Zigor Elorriaga

Duela urtebete, +Verde aldizkariak beste etapa bati eman zion hasiera: Ataria, Salburuko hezeguneen interpretazio zentroari buruzko ale monografiko bat atera zuen. Hain zuzen, Atariak orduantxe ireki zituen ateak, hezeguneen balioari buruz komunikatu, hezi eta kontzientziatzeko helburuarekin, bai eta, oro har, ondare naturalari eta biodibertsitatearen kontserbazioari buruz ere.

Xede horrekin, Eraztun Berdeko ekipamendu berri horrek programazio zabala eskaintzen du, publiko guztietarako proposamenekin. Lehen urtean, 98.000 bisitak eduki ditu Atariak, eta horrek erakusten du onarpen bikaina lortzen ari dela.

Lehen urtean, hainbat jarduera egin dira. Besteak beste, hauek azpimarra daitezke: eskola-umeentzako "Ezagutu Salburuko hezegunea" jarduera; denboraldi baterako erakusketak, hala nola, "Naturako Argazkilariak", Vitoria-Gasteizko klasikoetako bat dena; tokiko ondare naturaleko zenbait elementu eta fenomeno ezagutzeko ibilbideak, hala nola, pagadiaren loraldia eta San Antonio igeltxoaren gorteiatzea; lepidopteroak edo narrastiak ezagutzeko ikastaroak; eta biodibertsitateari eta ondare naturalari buruzko hitzaldiak eta mahai-inguruak (haietan, hizlari adituek eta entzutetsuek hartu dute parte).

Gune fisikoa izateaz gain, sarean ere badu lekua Atariak. Atariaren webguneak zentroa, ingurunea eta jarduerak ezagutzeko aukera ematen du. Horrez gain, duela gutxi, Atariak bere bloga ireki du. Blogean Salburuko asteko albistegi ornitologikoa argitaratzen da, besteak beste. Albistegi hori CEAren eta SEOk (Espainiako Ornitologia Elkarteak) Euskadin duen ordezkaritzaren arteko hitzarmenaren esparruko ekimena da. Eta horren ondorioz, ordezkaritza horrek Atarian instalatu du bere egoitza.

Horrenbestez, esan daiteke Atariaren lehen urtea arrakastatsua izan dela eta helburuak lortu direla. Zorionak eta urte askoan bide beretik jarraitzea espero dugu.

Hace ahora un año el boletín +Verde inició una nueva etapa con un primer número monográfico dedicado a Ataria, el Centro de interpretación de los humedales de Salburua, que también entonces abría sus puertas con el objetivo de comunicar, educar, concienciar sobre el valor de los humedales y, en general, sobre el patrimonio natural y la conservación de la biodiversidad.

Con este objetivo, este nuevo equipamiento del Anillo Verde ofrece una amplia programación con propuestas para todos los públicos. Las 98.000 visitas que Ataria ha recibido en su primer año de funcionamiento demuestran la magnífica acogida que está consiguiendo.

Entre las actividades llevadas a cabo este primer año pueden citarse la actividad para escolares "Descubre el humedal de Salburua", las exposiciones temporales como "Fotógrafos de la Naturaleza" que se ha convertido en un clásico en Vitoria-Gasteiz, los itinerarios para conocer diferentes elementos y fenómenos del patrimonio natural local, como la floración del hayedo o el cortejo de la ranita de San Antonio; los cursos de iniciación al conocimiento de los lepidópteros o los reptiles; y las conferencias y mesas redondas sobre biodiversidad y patrimonio natural que han contado con expertos y prestigiosos ponentes.

Además de ser un espacio físico Ataria es también un lugar en la red que cuenta con un sitio web desde donde conocer el centro, su entorno y sus actividades. Recientemente Ataria ha estrenado también su propio blog. En este blog se publica por ejemplo el noticiario ornitológico semanal de Salburua, una iniciativa enmarcada en el convenio firmado entre el CEA y la delegación de SEO (Sociedad Española de Ornitología) en Euskadi y por el que esta delegación ha instalado su sede en Ataria.

Puede hablarse pues de un primer año de Ataria de éxitos y objetivos cumplidos. Felicidades y deseos de muchos más años por el mismo camino.





Quintas

# Ataria, urtebete partaidetzara irekia

*Ireki zenetik, ia 100.000 bisita eduki ditu Salburuko interpretazio zentroak*

●●● Atariak itxaropen guztiak gainditu ditu. Salburuko hezeguneen interpretazio zentroak urtebete egingo du uztailaren 13an, eta gaztea izan arren, gune beteranoen garapena izan du. la 100.000 bisita izan dira ekipamendu horretan. Izan ere, parkeko ikono bihurtu da. Dena den, arkitektoak liluratu eta hirigileak gogobetetzen dituen behatoki handi honek bere sorreran ezarritako helburuak garatzen jarraitu nahi du; alegia: Vitoria-Gasteizen inguruko ondare natural baliotsua dibulgatzea, eta bisitariak horrekiko kontzientziatzea eta haren kontserbazioan inplikatzea.

Atariak erakutsi du ohiko bisitarien zentro bat baino askoz gehiago dela. Alde batetik, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren plataforma moduko bat da, eta hartatik, ikastegiak jarduera-agenda zabala eta erakargarria programatzen du, askotariko publikoentzat. Beste batetik, eztabaida-gunea da. Horretan, ondare naturalari eta haren kontserbazioari buruzko ekimenak proposatzeko eta iritziak emateko aukera dute herritarrek. Gainera, erakusketa interesgarriak antolatzen dira. Esate baterako, uztailean AlavaVisión kolektiboak antolatutako lehiaketan aurkeztutako argazkien erakusketa dago; hain zuzen, Eraztun Berdearen argazkiak. Aurretik, beste erakusketa bat egin zen: "Kantauri, ikuspegiak eta begiradak". Haren bidez, EuskalNaturak euskal kostaldeko paisaiak eta urpeko fauna erakutsi zizkigun. Gainera, Atariak badu beste helburu bat: Gasteizera beste leku batzuk hurbiltzea. "Munduko Paisaiak" ekimenaren bidez, hirian bizi diren atzerritarrek beren jaioterriko dibertsitateari buruz hitz egiten dute, paisaia, lurraldearekiko harremana eta ohiturak hizpide. Horixe egin zuten Nepalgo Gaggan Bahadur-ek eta Burkina Fasoko Brigitte Ingalo-k.

Behe-solairuko urmael interaktiboak aho zabalik utzi zituen haurrak, ikasleak eta familiak. Gainera, publiko bakoitzak harentzat bereziki egindako jardueretan hartu du parte. Ibilbide gidatu ugari egin dira, altxorrak erakusteko; esaterako, pagadien loraldia eta San Antonio igeltxoaren gorteiatzea.



CEA

# Ataria, un año abierto a la participación

*El centro de interpretación de Salburua ha recibido casi 100.000 visitas desde su apertura*

●●● Ataria ha superado todas las expectativas. El centro de interpretación de los humedales de Salburua cumple un año el 13 de julio y, pese a su juventud, su evolución ha sido propia de un espacio veterano. Casi 100.000 visitas ha recibido este equipamiento que ya se ha convertido en un icono del parque. Sin embargo, el gran observatorio que seduce a los arquitectos y convence a los urbanistas aspira a continuar desarrollando los objetivos por los que fue creado: divulgar y concienciar a sus visitantes sobre el valioso patrimonio natural que rodea a Vitoria-Gasteiz e implicarles en su conservación.

Ataria ha demostrado ser mucho más que un centro de visitantes al uso. Por una parte, constituye una plataforma desde la que el Centro de Estudios Ambientales programa una amplia y atractiva agenda de actividades dirigida a diversos públicos. Por otra, actúa como un foro donde la ciudadanía puede proponer iniciativas, aportar opiniones o exponer muestras interesantes sobre el patrimonio natural y su conservación. Como ejemplo, en julio el equipamiento acoge una exposición de fotografías del concurso organizado por el colectivo AlavaVisión, que retratan el Anillo Verde, a la que precedió otra, "Kantauri ikuspegiak eta begiradak", en la que EuskalNatura mostró los paisajes de la costa vasca y su fauna subacuática. Ataria también busca acercar a Vitoria-Gasteiz otros lugares a través de "Paisajes del Mundo", una iniciativa en la que extranjeros residentes en la ciudad hablan sobre la diversidad de su país de origen desde el paisaje, la relación con el territorio o las costumbres, como hicieron Gaggan Bahadur con Nepal o Brigitte Ingalo con Burkina Faso.

La balsa de agua interactiva ubicada en la planta baja encandiló al público infantil, escolar y familiar, que además participó este año en actividades a su medida. Numerosos itinerarios guiados han mostrado tesoros como la floración de los hayedos o el cortejo de la ranita de San Antonio, y



CEA



Quintas

Gainera, ikerketa- eta kontserbazio-teknikak ezagutu nahi zituztenentzat, entomologiaren eta herpetologiaren hastapenei buruzko ikastaroak antolatu ziren. Hainbat adituk hitz egin dute biodibertsitateari buruz, hitzaldietan eta mahai-inguruetan. Besteak beste, hauek izan dira Atarian: Fernando Hiraldo (Doñanako Estazio Biologikoko zuzendaria), Tibor Szép (Hungariako Nyíregyházako Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea), German Alonso (Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendaria) eta Fernando de Juana (CEAko Plangintza eta Proiektuen Arloko burua). Zenbait ekitaldi egin dira Atarian; hala nola, Hezeguneen Nazioarteko Eguna eta Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna.

Jardueren programa alde batera utzita, bisitariak, sartzen diren unetik bertatik, Salburuko hezeguneen mamiaz ohar daitezke, eraikinaren inguruko zenbait urmaeletan hezeguneko espezie botanikoak baitaude. Zentroaren barruan, erakusketa iraunkorrak parkearen sekretuak argitzen ditu. Honako hauek, besteak beste: urmaeletako uraren jatorria; paisaiaren urtaroko aldaketak, eta faunaren eta floraren moldaerak; espezie inbaditzaileen arriskua; hezegunearen berreskurapenaren historia; eta hiriari ematen dizkion zerbitzuak. Ikus-entzunezko formatuan, proposamen didaktiko osoa egiten du Atariak; besteak beste, urrunetik agindutako kamera batek urmaelen erdira eramaten ditu bisitariak, eta bideo harrigarri batek erakusten du nola ikusten den hezegunea burruntzi baten begien bidez. Hori ikusita, publikoa zur eta lur geratzen da, eta hezegunearen kontserbazioan duen arduraz ohartzen da.

Hain zuzen ere, Atariak, partaidetza eragiteko, beste aurrerapauso bat eman du eta gizarte-sareen aroan sartu da. www.ataria.es webgunearen bidez, erabiltzaileek ekipamendua eta haren jarduerak ezagutzeko aukera dute. Gainera, zentroarekin harremanetan jartzeko bide bat aurkitzen dute. Duela gutxi, Atariak bere bloga hasi du. Haren bidez, CEAk naturaren kontserbazioari buruzko informazioa, gogoetak eta erreferentziak ematen ditu. Gainera, laster, Atariaren kolaboratzaileek eta lagunek ere esparru birtuala izango dute, beren ikuspuntua emateko. Izan ere, erabiltzaileek ematen diete zentzua zentroaren balioari eta proposamenei. Eta, aurten, Ataria sendotzeko, herritarren eztabaidagunea izateko bokazioa finkatzea eta ekimen berrien bidez zabaltzea dugu helburu.

los interesados en conocer técnicas de estudio y conservación aprendieron en cursos de iniciación a la entomología o la herpetología. Los expertos Fernando Hiraldo (Director de la Estación Biológica de Doñana), Tibor Szép (Profesor e investigador de la Universidasd de Nyíregyháza, Hungría), Germán Alonso (Director de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco) y Fernando de Juana (Jefe del Área de Planificación y Proyectos del CEA), entre otros, hablaron sobre biodiversidad en conferencias y mesas redondas. Eventos como el Día Mundial de los Humedales o el Día Mundial de la Biodiversidad convirtieron a Ataria en el epicentro de su celebración.

Al margen de su programa de actividades, ya desde su entrada, Ataria muestra a sus visitantes la esencia de los humedales de Salburua a través de varios estanques que albergan distintas especies botánicas propias del humedal. En su interior, la exposición permanente desvela los secretos del parque: la procedencia del agua de las balsas, los cambios estacionales en el paisaje y las adaptaciones de la fauna y la flora, el peligro de las especies invasoras, la historia de la restauración del humedal o los servicios que presta a la ciudad. En formato audiovisual, una cámara telecomandada que accede al centro de las lagunas y un vídeo de la sorprendente visión del humedal desde los ojos de una libélula completan una propuesta didáctica que asombra al público y le hace partícipe de su papel conservador.

Precisamente, Ataria da un paso más en su intención de facilitar la participación y se suma a la era de las redes sociales. A través de su web, www.ataria.es, los usuarios conocen el equipamiento y sus actividades y encuentran además un canal de comunicación con el centro. El portal ha estrenado recientemente un blog en el que el CEA publica información, reflexiones o referencias sobre la conservación de la naturaleza y, en breve, también los colaboradores y amigos de Ataria tendrán su propio espacio virtual para aportar su punto de vista. Porque los usuarios dan sentido al valor y las propuestas de este centro. Y, entre sus objetivos de consolidación, Ataria aspira este año a que su vocación de foro ciudadano se asiente y se amplíe con nuevas iniciativas.







*Apatura ilia* Ferran Turmo (fturmog, Flickr)



*Gomphus pulchellus* José Antonio Gainzarain

## Beste bi intsektu-espezie Eraztun Berdean

### *Oso tximeleta-espezie arraro bat Salburuan*

●●● 2006ko uztailean José Sebastián Estévez entomologiazaleak oso gutxi ikusten den tximeleta bat sumatu zuen Betoñuko urmaelean: *Apatura ilia* espezieko tximeleta bat, hain zuzen. Aipamena aspaldikoa bada ere, Jose Sebastian orain ausartu da berri hura zabaltzera, zenbait urte igaro eta Atarian intsektu horiei buruz egindako ikastaroaren ondoren.

Oso tximeleta ederra da; argia errefraktatu egiten da arren hegalen aurrealdean, eta urdin purpura koloreko distira ematen die.

Oso gogokoa du, urertzetako oihanetan, zuhaitzen izerdiaz eta bestelako likidoez elikatzea. Ikusteko zaila izaten da, tximeleta bakana izateaz gain, zuhaitzen adaburuen gainetik, oso goian hegan egiten duelako.

Penintsulako iparraldean barreiaturik dago, oso era sakabanatuan. Salburuko aipamena Arabako bigarrena da, eta Euskal Herriko hirugarrena. Oso tximeleta-espezie arraroa da eta, aurkikuntza horri esker, ezagutzen ditugun Salburuko tximeleta-espezieen kopurua handitu egin da.

### *Beste burruntzi-espezie bat Zabalganan*

●●● Beste zale batek, José Antonio Gainzarainek, argazkian ageri den *Gomphus pulchellus* espezieko burruntzia aurkitu zuen iragan ekainaren 4an, Zabalganeko parkeko urmaeletan.

Arabako beste leku batzuetan, Izki parke naturalean esaterako, burruntzi-espezie hori ezagutzen zen arren, Eraztun Berdean ez zegoen oraindik horren berririk. Europako hegomendebaldean baino ez da bizi burruntzi-espezie hau.

Eraztun Berdeko ibai eta urmaelek odonatu-familia aberatsa dute (burruntzi eta sorgin-orratzak): guztira 35 burruntzi-espezie, Zabalganan aurkiturikoa barne. Eraztun Berdea Autonomia Erkidegoko azaleraren % 0,1 inguru besterik ez da gutxi gora-behera, baina bertan Euskal Herrian dauden odonatu guztien bi herenak ikus daitezke.

## Dos nuevas especies de insectos en el Anillo Verde

### *Una mariposa muy rara en Salburua*

●●● En julio de 2006 un aficionado a la entomología, José Sebastián Estévez, observó en la balsa de Betoño una mariposa de gran rareza: *Apatura ilia.* Aunque la cita es antigua, ha sido ahora, unos años después y tras un curso sobre estos insectos realizado en Ataria, cuando José Sebastián se ha animado a divulgarla.

Se trata de una mariposa muy hermosa; el anverso de las alas de los machos refracta la luz, concediéndoles un reflejo tornasolado azul-púrpura.

Le gusta alimentarse en los bosques de ribera, de la savia de los árboles y otros líquidos. Es difícil de observar ya que, aparte de ser escasa, suele volar muy alto, por encima de las copas de los árboles.

Se distribuye de forma dispersa por el norte peninsular. La cita de Salburua es la segunda para Álava y la tercera para el País Vasco. La especie está considerada como muy rara, y supone un interesante incremento del número de especies de mariposas descritas en Salburua.

### *Una nueva libélula en Zabalgana*

●●● Otro aficionado, José Antonio Gainzarain, descubrió en las lagunas del parque de Zabalgana el pasado 4 de junio el ejemplar de *Gomphus pulchellus* que aparece en la fotografía.

Es una especie que no había sido citada hasta la fecha en el Anillo Verde, aunque sí en otros lugares de Álava como el parque natural de Izki. Se trata de una especie que sólo habita en el suroeste europeo.

Los ríos y lagunas del Anillo Verde atesoran una rica comunidad de odonatos (libélulas y caballitos del diablo) cifrada, con esta nueva libélula de Zabalgana, en 35 especies. En el Anillo Verde, que supone solamente en torno al 0,1% de la superficie de la Comunidad Autónoma, es posible observar las dos terceras partes de todos los odonatos presentes en el País Vasco.



Quintas

# Gasteiztarren ustez Eraztun Berdearekin hobetu egin da hiriko bizi-kalitatea

●●● "Bizi-kalitatea eta jendearen izadiarekiko erlazioa hobetu egin dira". Hori da Gasteizko hamar hiritarretatik zortzik Eraztun Berdeari buruz duen iritzia, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak telefonoz eta parkeetan bertan 400 gasteiztarren eta parkeetako 320 erabiltzaileren artean egindako bi galdeketen arabera. Azterketa horretan oso kalifikazio ona eman zaio Erantzun Berdeari, eta ingurune horren erabilerari eta ezagutzari buruzko zenbait ezaugarri azaldu dira.

Gasteizko biztanleen % 62k erabiltzen du Eraztun Berdea eta galdetutako gasteiztarren % 67k Eraztuna osatzen duten parkeen izenak ezagutzen ditu; hala ere, soilik erdiek mugatzen dute Eraztun Berdea zehaztasun osoz. Salburua, Olarizu eta Armentia dira erabiltzaileek gehien bisitatzen dituzten parkeak, eta gutxienez hilean behin joaten direla aitortu dute galdeketan parte harturiko erabiltzaileen erdiek. Galdetutako hamarretatik zazpi paseatzera joaten omen da Eraztun Berdera. Kirola egiteko, berriz, Zabalgana da parkerik gustukoena.

Erabiltzaile gehienen arabera, parkeak garbi eta ongi seinaleztatuak daude, eta seguruak dira. Eraztun Berdeko osagai eta instalazioei dagokienez, oso kalifikazio ona jaso dute. Puntu-kopuru txikiena iturriei eman zaie eta eskatutako zerbitzuen artean komunak dira azpimarragarrienak. Bestalde, parkera inguratzen direnen % 90ek erabiltzen ditu Ataria eta Salburuko hegazti behatokiak.

# Los vitorianos creen que el Anillo Verde mejora la calidad de vida de la ciudad

●●● "Mejora la calidad de vida y la relación de la gente con la naturaleza". Es la opinión sobre el Anillo Verde de ocho de cada diez ciudadanos de Vitoria-Gasteiz, en base a dos encuestas realizadas por el CEA a 400 vitorianos y 320 usuarios de los parques, por teléfono y a pie de campo respectivamente. Un estudio que otorga al proyecto de Anillo Verde un notable pero desvela distintas caras de su uso y conocimiento.

El 62% de la población de Vitoria-Gasteiz es usuaria del Anillo Verde y el 67% de los gasteiztarras preguntados conoce los parques que lo componen aunque sólo poco más de la mitad define correctamente el Anillo Verde. Salburua, Olarizu y Armentia son los parques más visitados por los usuarios, que confiesan acercarse al menos una vez al mes en la mitad de los casos. Siete de cada diez preguntados visitan el Anillo Verde para pasear. Zabalgana es el parque preferido para hacer deporte.

La mayoría de los usuarios está de acuerdo con que los parques están limpios, bien señalizados y son seguros. Los elementos e instalaciones del Anillo Verde reciben como media un notable alto. La peor puntuación la obtienen las fuentes y entre los servicios demandados destacan los baños públicos. Ataria y los observatorios de aves de Salburua son utilizados por el 90% de los usuarios de este parque.



Quintas



Quintas





## Ekipamenduak - Equipamientos

**OLARIZUKO ETXALDEA**
**Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren egoitza**
**CASA DE LA DEHESA DE OLARIZU**
**Sede del Centro de Estudios Ambientales (CEA)**
Tel: 945 16 26 96 - http://cea.vitoria-gasteiz.org
Ordutegia / Horario: astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes, 8:00-15:00.

**ATARIA, Salburuko hezeguneen interpretazio zentroa**
**ATARIA, Centro de interpretación de los humedales de Salburua**
Tel: 945 25 47 59 - http://www.ataria.es/
Ordutegia / Horario: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.

**Salburuko hegaztien behatokiak (“Las Zumas” eta “Los Fresnos”)**
**Observatorios de aves de Salburua (“Las Zumas” y “Los Fresnos”)**
Ordutegia / Horario: 9:00-20:00.
Arreta zerbitzua (“Los Fresnos”) / Servicio de atención (“Los Fresnos”): asteburuetan eta jaiegunetan / fines de semana y festivos, 12:00-14:00.

**Olarizuko baratzeak**
**Huertas de Olarizu**
Ordutegia / Horario: 8:30-20:45.

**Urarteko (Abetxuku) baratzeak**
**Huertas de Urarte (Abetxuko)**
Ordutegia / Horario 8:00-21:30.

### ●●● Atariaren udako egitaraua
Ibilbideak Salburuan eta Gasteiz mendietan, birdwatching hastapenak, familientzako jarduerak...
Informazioa: http://www.ataria.es

### ●●● Erakusketak
- "Eraztun Berdea"ri erakusketa kolektiboa. AlavaVisión kultur elkartea. Uztailaren 15-irailaren 5. Ataria.
- “Bizitza akuatikoa”. Irailaren 16-urriaren 24. Ataria.

### ●●● Hitzaldiak
- “Munduko paisaiak: Senegal”. Irailaren 16. Ataria.
- “Hegaztien mundu eguna”. Irailaren 30. Ataria.

### ●●● Ingurumen-hezkuntzako jarduerak 2010-2011 ikasturterako
Informazioa: CEA
Izena ematea: irailaren 1-17. www.vitoria-gasteiz.org

### ●●● Oreinen marrualdiaren inguruko jarduerak Salburuan
### ●●● Lantegiak Abetxukuko eta Olarizuko baratzeetan
### ●●● Loreontzietako lorezaintzari buruzko lantegiak
Informazioa eta izena ematea: iraila. CEA, Ataria, gizarte etxeak eta udal web orria.

### ●●● 8 Lehiaketa “Medioambiente Vitoria-Gasteiz Ingurumena”
Gaia: dibertsitatea. Informazioa: CEA.
Lanak bidaltzeko epea: irailaren 27-urriaren 8. CEA.

### ●●● Programa de verano de Ataria
Itinerarios por Salburua y Montes de Vitoria, iniciación al birdwatching, actividades familiares...
Información: http://www.ataria.es

### ●●● Exposiciones
- Exposición colectiva "Anillo Verde". Asociación Cultural AlavaVisión. 15 de julio-5 de septiembre. Ataria.
- “Vida acuática”. 16 de septiembre-24 de octubre. Ataria.

### ●●● Conferencias
- “Paisajes del mundo: Senegal”. 16 de septiembre. Ataria.
- “Día Mundial de las Aves”. 30 de septiembre. Ataria.

### ●●● Actividades de educación ambiental para el curso 2010-2011
Información: CEA.
Inscripción: 1-17 de septiembre. www.vitoria-gasteiz.org

### ●●● Actividades en torno a la berrea de los ciervos en Salburua
### ●●● Talleres en las Huertas de Abetxuko y Olarizu
### ●●● Talleres de jardinería en maceta
Información e inscripción: septiembre. CEA, Ataria, centros cívicos y web municipal.

### ●●● 8º Concurso fotográfico “Medioambiente Vitoria-Gasteiz Ingurumena”
Tema: diversidad. Información: CEA.
Admisión de obras: 27 de septiembre-8 de octubre. CEA.



Iván Martín

"Eraztun Berdea" Erakusketa-Exposición "Anillo Verde". AlavaVisión

**Ingurugiro Gaietarako Ikastegia -** Centro de Estudios Ambientales (CEA)
**Vitoria-Gasteizko Udala -** Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
**Olarizuko Etxaldea -** Casa de la Dehesa de Olarizu
01006, Vitoria-Gasteiz
**Tel. 945 16 26 96 / Fax 945 16 26 95**
**ceaadmin@vitoria-gasteiz.org / http://cea.vitoria-gasteiz.org**

**eraztunberdea.vitoria-gasteiz.org**
anilloverde.vitoria-gasteiz.org

# Zabalgana barrutik

*Auzoak duen gizarte-, historia- eta ingurumen-aberastasuna ezagutzeko ibilbidea*

●●● Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak, Zabalgana Pasabidea auzo-elkarteak eta egoitza auzoan duen Aspacek (garun-perlesia duten pertsonen aldeko elkarteak) ibilbide bat antolatu dute elkarlanean, Zabalgana auzoko aberastasun natural, sozial eta historikoa ezagutarazteko.

Iragan ekainaren 19an eman zuten ekimen horren berri. Ibilbidea gidari eta guzti egin zen, eta auzokide-talde batek ere hartu zuen parte. Orain, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren webgunean eskura daitekeen gidaren laguntzarekin, edozeinek egin dezake ibilbidea bere kasa.

Ibilbideak La Antonia biribilgunetik Zabalgana parkeraino zeharkatzen du auzoa, hasierako zatia Ehari ibaiaren ondoan eginez. Guztira hamalau geltoki edo geraleku ditu, eta horietako bakoitzean inguruneko dibertsitate biologiko eta naturalaren ikuspegi zehatzak azaltzen dira.

Ibilbidean zehar, ibaien ibilguekiko errespetuaren eta horien ezaugarrien, bidegorrien, oinezkoen gaineko pasabideen eta bilketa pneumatikoaren berri ematen da. Baita zenbait kaleren izenen berri ere. Izan ere, Martin Luther King bezalako bakezale historikoen eta ardoaren eta arrainaren ibilbidea eratu zuten Arabako herri ezagunen izenak dituzte. Aipagarria da, halaber, Iruña-Veleiako erromatarren galtzada, garai batean auzoa zeharkatzen baitzuen. Eta hori guztia osatzeko, ingurunean dagoen flora- eta fauna-espezieen xehetasunak ematen dira, inguruan dagoen Zabalganeko parkean azeria, uroiloa eta erbinudea bizi baitira, buztangorri ilunarekin, erkametzarekin edo txikoria-belarrarekin batera.

Ibilbide osoa bi ordutan egiten da, baina zatika ere egin daiteke; eta jolas, kontakizun eta erronka bitartez, gizarte- eta ingurune-gaiak jorratzen dituzten jarduerak ere proposatzen dira geltoki bakoitzean. Formula xume eta atsegin horren bidez, auzokoek eta bisitariek Zabalgana ezagutu eta zaindu ahal izango dute.

# Zabalgana desde dentro

*Un itinerario para descubrir la riqueza social, histórica y ambiental del barrio*

●●● El Centro de Estudios Ambientales, la asociación de vecinos de Zabalgana Pasabidea y el colectivo de apoyo a personas con parálisis cerebral Aspace, que tiene su sede en el barrio, han colaborado en el diseño de un itinerario para conocer la riqueza natural, social e histórica del barrio de Zabalgana.

Esta iniciativa se dio a conocer el pasado 19 de junio, cuando se realizó el itinerario de forma guiada con la participación de un grupo de vecinos. Ahora, cualquier persona puede hacer el recorrido por su cuenta con la ayuda de un documento–guía al que se puede acceder a través de la web del CEA.

La ruta recorre el barrio desde la rotonda de La Antonia hasta el parque de Zabalgana, apoyándose en su primer tramo en el río Ali. Tiene catorce estaciones o paradas en cada una de las cuales se describen aspectos concretos de la diversidad biológica y cultural de la zona.

El itinerario destaca el respeto al cauce de los ríos y sus características, los carriles bici, los pasos de peatones elevados o la recogida neumática. Asimismo, explica los nombres de algunas calles, bautizadas con los de históricos pacifistas como Martin Luther King o los de conocidos pueblos de Álava que conformaron la ruta del vino y el pescado. Destaca también la calzada romana de Iruña-Veleia que antiguamente atravesaba el barrio. Todo ello se completa con un acercamiento a las especies de flora y fauna que habitan en la zona, desde el colirrojo tizón, el quejigo o el diente de león, hasta el zorro, la gallineta o la comadreja que conviven en el cercano parque de Zabalgana.

El itinerario se completa en dos horas, aunque puede realizarse de forma parcial, y propone en cada estación una actividad que trata cuestiones socioambientales a través de un juego, una historia o un reto. Una fórmula sencilla y amena con la que vecinos y visitantes pueden conocer Zabalgana y participar en su cuidado.

**Izena ematea eta iradokizunak**
Suscripción y sugerencias

**Argitalpen hau jaso nahi baduzu, paperean zein digitalean, edo iradokizunen bat egin nahi baduzu, deitu 945 16 26 96 telefonora edo bidali posta elektronikoa ceaadmin@vitoria-gasteiz.org helbidera.**

Si deseas recibir esta publicación en papel o digital, o realizar alguna sugerencia, llama al teléfono 945 16 26 96 o envía un correo electrónico a ceaadmin@vitoria-gasteiz.org